

## **2018ko OTSAILAREN 1eko OSOKO** **BILKURA ARRUNTAREN LABURPENA**

### **1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.**

2018/01/04ko akta onetsi da.

### **2. “Larraintzarko Benta” zentro zibikoaren atezaintza-, garbiketa- eta taberna-zerbitzuak 2018-2021 aldirako kontratatzeko espedientea. Adjudikatzeko erabakia.**

Alkateak gaia azaldu du: Behin espedientea hasiera batean onartuta eta zentro zibikoaren berezko jarduerarekin egokiagoa egiteko tabernako irekitze ordutegiaren aldaketa txikiaren ondoren, kontratuaren esleipenerako proposamen bat bakarrik aurkeztu da, kontratazio mahaiarentzat nahikotzat hartu dena eta baldintza pleguarekin bat dator, hori dela eta honen aldeko kontratuaren esleipena proposatu da.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta bere taldearen aurkako botoa iragarri du ulertzen duelako pleguan aldaketak egin direla berriz ere berdinak aurkezteko eta hori ez zaie ondo iruditzen, ezta egokiena ere.

Amaitzeko esan du halako irudi bat eman dela non, zeuden adjudikaziodunak kexatu direnez, zituzten baldintzak hobetu zaizkiela eta kontratua deuseztatu zitzaien aurreko adjudikaziodunek ere hura lortzeko aukera izan zezaketen.

Martinez Urionabarrenechea alkateak laburki erantzun dio honako argudioekin: Hautagai posibleak ziren sei pertsoneri eskutitzak bidali zitzaizkien aurkez zitezten, hauen barruen zeuden aurreko adjudikaziodunak, eta denbora nahikoarekin. Aldi berean, kontratazio prozedura udaletxeko iragarri taulan eta web orrian iragarri zen eta zentro zibikoaren zerbitzuak partekatzen dituzten gainerako udalei abisuak bidali zitzaizkien iragarri zezaten. Badirudi aurreko adjudikaziodunek ez zutela aurkeztu nahi izan, eta bere momentuan ez zitzaien kontratua deuseztatu, deuseztatze kausa, mota honetako kontratazioen gehienezko legezko lau urteko muga pasatu izana izan zen.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da:

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusitik Udalbatzak puntu hau onartu du.

### **3. Hasiera batez onestea aurrekontuaren 3/2017 aldaketaren Espedientea. Kreditu bereziak eta kreditu gehikuntza onestea.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Idazkariak hartu du hitza eta azaldu du aldi berean hasiera batean akordio proposamenean aurreikusten ez zen beste aurrekontu aldaketa bat proposatzen dela Osoko Bilkuraren deialdiaren ondoren izandako informazioengatik eta berau Ultzanueta zerbitzuen mankomunitateak egin behar dituen obrak finantzatzera zuzendutako gastuen partida handitzea da, hau gastu orokorretarako 2016ko ekitaldiaren diru soberakinen bitartez finantzatuko da eta 220.757,28 eurokoa da. Handitu beharreko zenbatekoa 18.000,00 eurokoa da (gaur egun dituen 34.000,00 euroez gain) eta arrazoa da mankomunitate honek 2017an egindako "presio handiko ur horniduraren obra osagarriak" izeneko obrak azkenean udalari pixka bat gehiago kostatu zaizkiola, Larraintzarren egin behar izan diren lan batzuegatik alde batetik, kontzeju honen eskera/erreklamazioa, eta bestetik Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzaren beheranzko kalkulua.

EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak, Ultzanueta zerbitzu mankomunitateburua den aldetik, azaldu du Larraintzarko kontzejuaren batzordearen erreklamazioarengatik egindako obra hau errepikagilurako bidearen saneamendua izan zela eta hauek egitearen arrazoa izan zen aurreko legealdian, Larraintzarko herriko uraren deposituan kontzeju honek obra batzuk egin zituela eta ondorioz, Ultzamako Alkatetzak aipaturiko kontzejuarekiko konpentsazio konpromiso bat aitortu zuela, zein jada mankomunitatearen konpetentzia izatera pasatuko zela jakina zen.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta eguneko gai zerrendako puntu honen bere taldearen aurkako botoa adierazi du lan honetan egon diren desbideratzeak %18ra heldu baitira, gehiegizkoa iruditzen zaiona, eta ez du ulertzen ezta ere jada 2018ko ekitaldiko aurrekontuak onartuta izanik 2017ko ekitaldiko aurrekontua aldatu behar izatea. Bere mesfidantza adierazi du halaber lan egiten den moduarekin eta bere zalantza gehikuntza hau ez ote den "zerbait estaltzeko"; amaitzeko esan du gauzak ez direla ondo egiten

eta prezio igoera honekin agian beste lizitazio enpresa batzuk parte hartu ahal izan zezaketela.

Martinez urionabarrenechea alkateak erantzun dio proiektua udal arkitektoak egin duela, hau bere erabateko konfiantza duen profesionala izanik, eta obraren kostuaren azkeneko desbideratzearen zergatia aski azaldu dela (kanpoko pintura, barruko pintura eta saneamenduaren konexioarekin arazoak) eta bukatzeko aipaturiko zinegotziari galdetu dio ea "zerbait estali" adierazpen horrekin beraiez fidatzen ez direla esan nahi ote duen.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza berriz eta fidatzen direla erantzun dio, eta Udal taldeko berdineko Oyarzunek jarraitu du galdetuz ea azkeneko aurrekontuak 90.000 euroak gainditu izanak beste kontratazioa prozedura bat suposatzen ote duen.

Araujo idazkariak ezetz erantzun dio, publizitate komunitariorik gabeko negoziaturiko prozedura deitzen dena jarraitu dela, obra kontratuentzako 300.000 euroko muga du gaur egun tokiko erakundeen kasuan, prozedurak 200.000 euro gaindituko balitu, derrigorrezkoa litzateke prozedura Nafarroako Kontratazio atarian iragartzea.

Amaitzeko Martinez Urionabarrenechea Alkateak adierazi du izandako igoeraren azalpen edo justifikazio bat eskatuko zaiola udal arkitektoari, eta Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak adierazi du ez dagoela Ultzanueta zerbitzu mankomunitatearen obren gastu partidaren igoerari dagokion aurrekontu aldaketaren oposiziorik.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da:

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.

- Aurrakoto botoak: Erviti, Herranz, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipaturako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusitik Udalbatzak puntu hau onartu du.

#### **4. Mendiko larre irekien eta hertsien aprobetxamenduak 2018rako adjudikatzeko prozedura. Bidezko erabakiak hartzea.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Idazkariak azaldu du Udala Nafarroako Gobernutik modu ofizialean noiz jakinaraziko zain dagoela Europar Batasuneko Nekazaritza Politikan sartzeko aukera duten Udalaren komunalen hektarea kopuru

zehatza, eta martxoan baino lehen jakitea espero dela. Hori dela eta, zozketa egiteko orduan eta zenbaki zehatz hau ikusita, agian banaketa proportzional bat egin beharko litzateke, Europar Batasuneko Nekazaritza Politikaren ondorioetarako azkeneko azalera eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez balitz.

Osoko Bilkurara bertaratutako bi udal taldeen aldetik ez dago eragozpenik akordio proposamenean aurreikusten den akordioa hartzearekin, geroago egin behar izango diren doikuntzen zain, bere kasuan, behin Europar Batasuneko Nekazaritza Politikaren erabilerarako Ultzamako komunalei esleitutako azalera definitiboaren datu hau jakinda.

Aho batez onetsi da.

## **5. Tortura jazartzearen eta gaitzestearen aldeko manifestua” onestea**

Alkateak jakinarazi den berezko akordio proposamenaren edukiaz hitz egin du zuzenean.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du beraien aldetik torturaren eta honen praktikaren aurka dauden arren, mozio edo akordio proposamen honen aurka daudela honako arrazoiengatik:

1- Ulertzen dute adierazpen hau ETA talde terroristaren hilketak eta gainerako jokaerak zurrizko modu bat dela.

2- Oraindik ETA taldearen 350 hilketa argitu gabe geratzen direla, horietatik 13 Nafarroan, eta horregatik kontu honetaz dakienak hitz egin dezala eta argitu daitezela. Era berean ETA taldeak torturatutako eta hildako jende asko egon da eta hauek ahaztuta daude.

3- Egoera hau zurriztea “zurrizuezina” da, hiltzailea beti izango baita hiltzaile eta biktima beti izango da biktima eta ezin daitezke berdintzatatu edo kontsideratu.

Amaitzeko esan du bere aldetik noski torturaren aurka daudela baina BILDU koalizio politikoak ez dituela inoiz ETAREN atentatuak eta basakeria kondenatu eta orain proposamen honen aurkezpena gertatutako guztiari ia iseka bat egitea bezala dela uste du.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak bere aldetik erantzun dio bere taldearen aldetik gai honetan aurrera pausuak emateko garaia dela kontsideratzen dutela eta alde bateko eta besteko bizikidetasuna nahi dugula, denon artean aurrera pausuak eman behar dira nahiz eta

ezberdin pentsatu. Bere aldetik tortura guztiak kondenatzen dituela azaldu du baita ere eta leku guztietan torturatu asko daudela adierazi du eta horren inguruan ez dela ezer argitu.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza berriz ere eta adierazi du bere aldetik ados egon daitekeela tortura guztien gaitzespenari dagokion alkatearen adierazpen hauekin baina akordio proposamenean, zehazki, eskuineko muturrak eta funtzionario publikoak egindako torturei buruz bakarrik hitz egiten dela.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da:

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.

- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, Oyarzun, eta Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipaturako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusitik Udalbatzak puntu hau onartu du.

Akordioaren testu osoa akta osoan.

1.- ULTZAMAKO Udalak tortura kasuak ikertu eta argitaratu beharra adierazten du eta tortura sufritu duten pertsonetikiko laguntza eta defentsa erakusten du. Era berean, Udal honek bere prestasuna erakusten du, horretarako eskubidea duten egian, errekonozimenduan eta erreparazioan laguntzeko.

2.- ULTZAMAKO Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio egin dezala torturaren gaia argitzeko eta biktimen erreparazioan laguntzeko bere eskuetan dagoen guztia eta bere babes guztia ematen dio ematen ari diren pausuei eta norabide honetan emango direnei. Beraz, torturen kasuak dokumentatzeko proiektuaren garrantzia eta beharra azpimarratzen ditu.

**6. Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren honako ebazpen hauek: 2017ko 251.etik 255.era eta 2018ko 1.tik 8.era.**

Kontuan hartu dira goian aipaturiko alkatetzaren ebazpenak.

## **7. Alkatetzaren informazioak.**

Ez dago informaziorik.

## **8. Eskaerak eta Galderak.**

1.- Eskaera: Agrupacion Ultzama Udal taldeko Oyarzun zinegotziak eskaera bat egin du udal kiroldegiaren eta bailarako kirolaren kudeaketaren egoeraren inguruan adieraziz, kiroldegia oso zikina dagoela, kantxan irristatzen dela eta, bestalde, Ultzaman kirolaren kudeaketa oro har oso utzita dagoela, orain dagoen teknikaria ez dela ezertara iristen, eta horregatik kexak daudela. Galdetu dute ea zein arduratzen den hau guztiaren gainbegiratzeaz eta kontrolaz eta beratu egiten ote den. Gehitu du baita ere kiroldegiko giltza duen jende asko dagoela, gehiegi bere iritziz, eta giltza nori ematen zaion kontrolatzea proposatzen du eta sarrailako giltza aldatzea edo zerbait egitea... Konponbide honen inguruan, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak proposatu du bi Udal taldeen artean modu adostu batean egin dadila eta ez bere taldea delako horrela eskatzen duena.

Martinez Urionabarrenechea alkateak eta EH Bildu Ultzama Udal taldeko Picabea zinegotziak kontu hauei erantzun diete honako argudioekin: Picabea bera, duela aste bat garbiketaz arduratzen den enpresarekin bildu zen (VARAZDIN fundazioa) kantxan irristatzearen gaia tratatzeko eta agian hezetasun arazo bat izan daitekeenaren ondoriora iritsi zirela, kontu honen gainean nola jokatu behar duten esan zaie jada. Kirol koordinatzaileari buruz zerbitzu sozialen mankomunitateak kontratatutako pertsona bat dela komentatu dute, orain behin behineko egoera batean dagoena eta zerbitzu hau horretarako kontratatutako kanpoko enpresa batek ematen du, baina zuzenean pertsona bat kontratatuzko deialdia onartu da eta NAO-n argitaratu da jada. Beharrezkoa bada instalazioen berrikuspen gehiago egingo dira eta dagokion kasuan ulertzen dute kexatzen diren pertsonak idazki bat aurkeztu beharko luketela udaletxean horrela jasota geratu dadin. Amaitzeko Picabeak adierazi du nolana ere ez duela onartzen gaiaren gainean ez daudela esatea eta ez dutela ezer egiten hori ez baita egia.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza eta garbiketa ordutegiak ostiralera aldatzea proposatu du, eskolako umeei instalazioak erabili ondoren, horrela asteburuan garbi gera daitezen eta edozein motatako oinetakoekin kantxan sartzea debekatu dezaten, lehen egiten zen moduan.

Jarraian gaia adostu da eta neurri batzuk hartzea adostu da: garbiketa ordutegiak, oinetakoen debekua, giltzen kontrola, instalazioen berrikuspena....

2.- Galdera: Agrupacion Ultzama Udal taldeko Oyarzun zinegotziak Alkozko isurbideen egoeraren inguruan galdetu du, eta honi EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak erantzun dio Udalaren kompetentzia ez den gai bat dela, Ultzanueta zerbitzu mankomunitatearena baizik, baina horren gainean daudela.